

GL10181

**KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA, “LEHIBERRI” TOLOSALDEKO LEHIAKORTASUN ETA BERRIKUNTZAKO ZENTROA ERAIKITZEKO OBRAK PROZEDURA IREKIAZ KONTRATATZEKO - 01B FASEA-**

**LEHEN KLAUSULA. Xedea eta kalifikazioa**

Kontratuaren xedea hau da: LEHIBERRI Tolosaldeko lehiakortasun eta berrikuntzako zentroa eraikitzeako obrak egitea – 01B fasea- Izaskun Larzabal arkitektoak eta Factor 4 merkataritza enpresak osatutako taldeak idatzitako Exekuzio Proiektuaren arabera (2010eko azaroa).

Lehen aipatutako exekuzio proiektuko gainerako obrak (01A Fasea eta 02 Fasea) Tolosako Udalak eta Tolosaldea Garatzen, S.A.k eskainiko dituzte hurrenez hurren.

Hiru faseak ( 01A FASEA, 01B FASEA eta 02 FASEA) exekuzio proiektu bereko atalak dira. 01A fasea 01B fasearekin batera lizitatuko da, eta 02 FASEA Tolosaldea Garatzen, S.A.k egokitzen jotzen duenean.

Kontratu honek obretako kontratu administratiboaren kalifikazioa dauka, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 6. artikuluan xedatuaren arabera.

**BIGARREN KLAUSULA. Hautaketa eta adjudikazio prozedura**

LEHIBERRI Tolosaldeko lehiakortasun eta berrikuntza zentroaren eraiketa obren (01B Fasea) kontratuaren adjudikazio modua prozedura irekiarena izango da, eta horretan interesaturik dagoen enpresari orok aurkeztu ahal izango du bere proposamena. Bestetik, kontratuaren terminoak ezin izango dira inolaz ere negoziatu, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeko 141 artikulua arabera.

Proposamenak baloratzeko eta ekonomikoki abantailarik handiena duen eskaintza zein den erabakitzeke, kontratuaren xedearekin lotura zuzena duten irizpideak hartuko dira kontuan, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeko 134.1 artikuluan eta agiri honetako hamargarren klausularen arabera.

**HIRUGARREN KLAUSULA. Kontratatzaileren profila**

Tolosaldea Garatzen S.A.k, bere kontratu jardueraren gaineko informazioen gardentasuna eta hura herritarren esku egongo dela ziurtatzeko, beste edozein publizitate baliabide erabiltzeari kalterik egin gabe, Kontratatzailearen Profila dauka, hurrengo web orri honetan erregulatutako zehaztapenen arabera ikusteko moduan: <http://www.tolosaldeagaratzen.net/eu/tolosaldea-garatzen/kontratatzailearen-profila>

#### **LAUGARREN KLAUSULA. Kontratuaren zenbatekoa**

Kontratuaren prezioa 1.330.586,66 eurora iristen da. Aurreko prezio hori honelaxe dago banatuta: 1.127.615,81 euroko balio estimatua eta 202.970,85 euro, Balio Erantsiaren gaineko Zerga gisara.

“LEHIBERRI ZENTROA – 02 FASEA” delakoari dagozkion obren aurrekontua Agiri honetako zortzigarren klausulan jasotako baldintzen arabera egin behar da.

Lizitazio honen xedea ez bada ere, egokia da adieraztea lizitazioaren aurrekontua 960.014,05 eurokoa da (BEZ barne) eta exekuzioa epea 10 hilabetekoa.

#### **BOSGARREN KLAUSULA. Kontratuaren iraupena**

LEHIBERRI Tolosaldeko lehiakortasun eta berrikuntzako zentroaren eraiketa obren (01B fasea) kontratuaren iraupena 5 hilabetekoa izango da.

Obren kontratuaren exekuzioa zuinetaren egiaztapen aktarekin hasiko da, kontratua formalizatu eta hilabete bateko epearen barruan.

#### **SEIGARREN KLAUSULA. Kontratatzeko gaitasunaren egiaztapena**

Proposamenak pertsona natural zein juridikoek, espainiar zein atzerritarrek, aurkeztu ahal izango dituzte, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kontratatzeko debekuetan sartuta ez badaude.

Enpresariaren **jarduteko gaitasuna** egiaztatzeko modua:

a. **Pertsona juridikoak** diren enpresariaren kasuan: eraketa eskritura edo dokumentuarekin, eta estatutu edo sorrerako egintzarekin, non ageriko diren bere jarduera erregulatzen duten arauak, behar bezala inskribatuta, hala badagokio, egoki den erregistro publikoan, pertsona juridikoaren ezaugarrien arabera.

b. Espainiarrak ez izan baina Europar Batasuneko Estaturen bateko nazionalak diren enpresariaren jarduteko gaitasuna, diharduten Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan egindako inskripzioaren bidez, edo bestela, aurkeztuz zinpeko aitortpena

edo ziurtagiri bat, arauzko terminotan egina, aplikaziozkoak diren Europar Batasuneko xedapenen arabera.

c. **Gainerako enpresari atzerritarrek**, Espainiak dagokion estatuan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostenarekin, edo, bestela berriz, enpresak helbidea duen lurraldeko Bulego Kontsularrak eginarekin.

2. Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeko 49 artikulua erregulatzen duen **kontratatzeko debekuren bat edukitzea** honelaxe frogatu ahal izango dute enpresariak:

a. Lekukotza judizialaren edo administrazio ziurtapenaren bidez, kasuen arabera; eta dokumentu hori ezin badu egin agintaritza eskudunak, haren ordeztuz erantzukizunpeko adierazpen bat, administrazio agintaritza, notario publiko edo erakunde profesional kualifikatu baten aurrean eginda.

b. Europar Batasuneko estatu-tako enpresen kasuan, dagokion estatuko legerian aurreikusten bada aukera hau, haren ordeztuz ahal izango da erantzukizunpeko adierazpena, agintaritza judizial batek emana.

#### **ZAZPIGARREN KLAUSULA. Kontratatzen sailkapena**

Kontuan hartuz kontratuaren zenbatekoa eta bat etorritik Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 25.1 artikulua-rekin –oraingik indarrean dago-eta Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeko Bosgarren Xedapen Iragankorrek xedatuaren arabera, kontratatze ezinbesteko baldintza da enpresariak hurrengo sailkapen hau izatea:

TALDEA: C KATEGORIA: E

\*TALDEA: I AZPITALDEA: 5 KATEGORIA: d

\*TALDEA: I AZPITALDEA: 6 KATEGORIA: d

\*TALDEA: J AZPITALDEA: 2 KATEGORIA: d

\*Sailkapena –I Taldea 5 Azpitaldea, I Taldea 6 Azpitaldea eta J Taldea 2 Azpitaldea-kontratatari exijituko zaio, edo hau ez badago sailkatuta dagokion espezialitatean, dagokion obra zatia exekutatzeko duen azpikontratatari.

#### **ZORTZIGARREN KLAUSULA. Proposamenen eta administrazio agirien aurkezpena**

Eskaintzak Tolosaldea Garatzen, S.A.n, (San Esteban 20, Tolosa 20.400) aurkeztu behar dira, lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean agertu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, hogeita sei eguneko epearen barruan.

Proposamenak aurkezteko moduak: posta, telefaxa, baliabide elektronikoak, informatikoak edo telematikoak, Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Erkidegoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan ezarritako tokietan.

Proposamenak posta bidez bidaltzen badira, enpresariak, batetik, justifikatu egin beharko du posta-bulegotik zein egunetan bidali duen; eta, bestetik, egun berean, iragarri behar dio kontratazio organoari, telex, fax edo telegrama bidez, bidali duela eskaintza, espediente zenbakia emanda, kontratuaren xedearen titulu osoa jarrita eta lizitatzailaren izenarekin.

Aipameneko telefax, fax edo telegrama hartu dela egiaztatzeko, udal idazkariak bertan eginbidea ezarriko du. Bi baldintzak ez badira betetzen, proposamena ez da onartuko, baldin eta iragarkian adierazitako epearen bukaera data iragan eta gero aurkezten bada proposamen hori. Edozein kasutan, aipatu data iragan eta hamar egun pasa eta gero, ez bada dokumentaziorik jaso, handik aurrera ez da onartuko.

Erabil daitezkeen baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoek, bete behar dituzte, gainera, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeko hemeretzigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak.

Lizitatzaille bakoitzak proposamen bat besterik ezin du aurkeztu. Ezin izango du, bestalde, beste batzuekin eratutako aldi baterako elkartean inongo proposamenik izenpetu, baldin eta indibidualki aurkeztu badu berea edo beste aldi baterako elkarteren batean agertzen bada. Arau hauetakoren bat hautsiz gero, berak izenpetutako proposamen bat bera ere ez da onartutako.

Proposamen bat aurkezteak esan nahi du enpresariak baldintzarik gabe onartzen dituela Agiri honetako klausulak.

Lizitazioan parte hartzeko proposamena bi gutunazal itxitan aurkeztu behar da, lizitatzailleak sinatuta eta jakinarazpenak egiteko helbidea jarrita, gutunazalaren izenarekin eta esaldi hau gainean duela: "Proposamena, LEHIBERRI Tolosaldeko lehiakortasun eta berrikuntzako zentroa eraikitzeako obrak – 01B fasea- kontratatzeako lizitazioan parte hartzeko". Gutun-azalen izenak hauek dira:

— "A" kartazala: Administrazioako dokumentazioa.

- **"B" kartazala: Proposamen ekonomikoa eta modu automatikoan kuantifikagarria den dokumentazioa.**
- **«C» kartazala: Balio-judizio baten mendeaz aztertu behar den dokumentazioa.**

Kartazal bakoitzean sartu behar diren agiriek originalak edo kopia kautotuak izan behar dute, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Kartazal bakoitzean ondorengo agiri hauek sartu behar dira, beren zerrenda zerbakidunarekin batera:

"A" kartazala  
ADMINISTRAZIOKO DOKUMENTAZIOA

**a) Enpresariaren nortasun juridikoa egiaztatze dokumentuak.**

**b) Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak.**

— Beste norbaiten ordez agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek haxe aurkeztu behar dute: ordezkaritza ahalordearen kopia notariala, udal idazkariak askietsia.

— Lizitatuzailea pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar du, legez exijigarria denean.

— Era berean, ordezkaritza ondorioetarako ahalorde askietsia duen pertsonak aurkeztu behar du bere nortasun agiri nazionalaren fotokopia, administratiboki konpultsatua, edo bere NANren notario lekukotza.

**c) Erantzukizunpeko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 49. artikuluan ageri diren debekuetako bat bera ere ez duela adierazten duena.**

Deklarazio horretan bertan adierazi behar da eguneratuta dituela zergen ordainketa eta Gizarte Segurantzako obligazioak, indarrean dauden legeek xedatuak. Halere, betebeharraren frogagiria berriro eskatu ahal izango zaio, behin betiko adjudikazioa egin baino lehen, kontratazioaren adjudikazioa egiten zaion enpresariari.

**d) Enpresaren sailkapena egiaztatzen duten agiriak.**

Sailkapena jaso zain dauden enpresek horretarako beharrezko eskaera egin dutela frogatzen duen dokumentua entregatu behar dute; eta egiaztatu, era berean, eskatutako sailkapena lortu dutela, dokumentazioaren akatsak konpontzeko edota falta diren dokumentuak aurkezteko aurreikusitako epearen barruan.

**e) Jakinarazpenak egiteko posta helbide elektronikoa.**

f) Behin-behineko bermea –kontratuaren aurrekontuaren % 3- jarri izanaren egiaztagiria.

g) Atzerriko enpresek edozein arloko epaitegi eta auzitegi espainiarren menpe jartzen direla adierazten duen aitordua aurkeztu behar dute, kontratua dela eta zuzenean edo zeharka sortu daitezkeen gorabeheretarako; eta, era berean, uko egin behar diote, dagokionean, eskatzaileari legokiokeen atzerriko barruti jurisdikzionalari.

«B» KARTAZALA

**PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKAGARRIA DEN DOKUMENTAZIOA.**

**a) Proposamen ekonomikoa.**

Hurrengo eredu honen arabera aurkeztu behar da:

« ..... jaunak/andreak, jakinerazpenetarako helbide honekin: ..... , ..... kalea, ..... zk.; NAN: ..... , ..... entitatearen izenean (IFK: ..... ) diharduela, eta LEHIBERRI Tolosaldeko lehiakortasun eta berrikuntza zentroa eraikitzeko obrak – 01B Fasea- kontratatzeke (prozedura irekia, eskaintza ekonomiko onuragarriena, adjudikazio irizpide batzuk) espedientearen berri izan duelarik, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, ..... zk.an, ..... egunean, eta kontratatzailearen profileen; adierazten dut, batetik, ezagutzen dudala kontratuaren oinarri den Plegua eta, bestetik, osorik onartzen dudala, lizitazioan parte hartuz eta, era berean, konpromisoa hartzen dudala, kontratuaren xede dena egiteko zenbateko honen truke: ..... euro, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga, ..... euro.

....., 20\_\_ko .....aren .....a

Lizitatzzailearen sinadura

Stua.: \_\_\_\_\_».

Modu berean, eta bereizita, aurkeztu behar da “LEHIBERRI ZENTROA-02 FASEA” aurrekontuko lanei dagokien proposamen ekonomikoa; lan horiek proiektuaren barruan badaude ere, ez daude sartuta kontrataren aurrekontuaren barnean; eta Tolosaldea Garatzen S.A.k egokitzen jotzen badu, eskaintako zenbateko ekonomikoarekin eta 10 hilabeteko epearen barruan egingo dira.

02 FASEAri dagokion eskaintza ekonomikoa nahitaez egin beharko da 1B FASErako proposatutako baja bera aintzat hartuta.

**b) Prezioaz aparte baloratuko diren irizpideei dagozkien dokumentuak, automatikoki kuantifikatu behar direnak.**

«C» KARTAZALA

BALIO-JUDIZIOEN BIDEZ AZTERTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

**Balio-judizio baten mendea dauden irizpideak baloratzeko beharrezkoak diren dokumentuak egongo dira barruan.**

**BEDERATZIGARREN KLAUSULA. Behi-behineko bermea**

Lizitatzailleek 33.828,47 euroko behin-behineko garantia jarri behar dute, kontratuaren adjudikazioa egin arte beren eskaintzak mantenduko dituztela bermatzeko.

Behin-behineko bermea hemen jarri behar da:

- Gordailu Kutxa Orokorrean edo bere sukurtsaletan, Ekonomia eta Ogasuna Delegazioetan kokatutakoetan, edo parekidea den Kutxa edo establezimendu publikoan, autonomia erkidego edo kontratatzaile diren entitate lokaletakoan, eragina sortu behar duten haietan, bermeak dirutan direnean.
- Kontratazio organoan, balore anotatuena, abalen edo kauzio aseguruena ziurtapenen inmobilizazio ziurtapenak direnean.

Behin-behineko bermea automatikoki iraungi eta lizitatzaillei berehala itzuli egingo zaie, kontratuaren adjudikazioa egiten denean. Edozein kasutan, bermea atxiki egingo zaio adjudikaziorako hautatutako proposamenaren lizitatzaileri behin betiko garantia eratu arte, eta konfiskatu egingo zaie, aldiz, beren proposamena, adjudikazioa egin baino lehen, justifikaziorik gabe erretiratzeko duten enpresei.

Adjudikaziodunak aplikatu ahal izango dio behin-behineko bermeari zenbatekoa behin betikoari, edo behin betiko garantia eratu. Azken kasu horretan, behin betikoa eratzearekin batera indargabetu egingo da behin-behinekoa.

**HAMARGARREN KLAUSULA. Adjudikazio irizpideak**

Ezin izango zaio ALTERNATIBARik aurkeztu lizitazioko proiektuari.

Proposamenak baloratzeko eta ekonomikoki abantailarik handiena duen eskaintza zein den erabakitzeke, adjudikazio irizpide bat baino gehiago hartuko da kontuan.

Obraren adjudikazioa hurrengo baremo hauek aplikatuz egingo da:

A. Automatikoki kuantifikagarriak diren irizpideak, beheranzko segidan puntuatuko dira:

a) Eskaintza ekonomikoa: 55 punturaino.

Prezioen puntuazioan, puntu kopuru handiena (55 puntu kasu honetan) proposamen baxuenari (K) emango zaio, eta gainerakoei (R) hurrengo formula aplikatuko zaie:

Puntuazioa,  $R = 55 - 1,5 \times (\text{Baja K} - \text{Baja R})$ ; bajak ehunekotan adieraziko dira; emaitza negatiboa bada, 0 puntu emango da.

Hasiera batean behintzat, desproporzionatutzat edo ausartegitzat joko da, aurkeztutako proposamen guztien baja portzentajeen batez besteko aritmetikoa, gutxienez, 10 unitatez gainditzen duen baja portzentaia duen proposamena. Horrelakotzat deklaratu baino lehen bertan sartuta dauden lizitatuak guztiei informazioa eskatuko zaie, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoaz gainera.

b) Kalitatea: Puntu 1 arte

1.- Balorazioa ondorengoaren arabera egingo da: Puntu 1 emango zaio ezaugarri hau duen eskaintzari: UNE-EN ISO 9001 edo 9002 kalitate ziurtapena, obraren zenbatekoaren % 75 baino gehiago den eraiketa prozesurako, edo borondatez 12 hilabete luzatzea Agiri honetan aurreikusitako berme epea.

2.- 0 puntu emango zaizkio ezaugarri hau duen eskaintzari: UNE-EN ISO 9001 edo 9002 kalitate ziurtapena ez edukitzea, obraren zenbatekoaren % 75 baino gehiago den eraiketa prozesurako, edo 12 hilabete ez luzatzea Agiri honetan aurreikusitako berme epea.

B. Balio-judizio baten mendean dauden irizpideak:

A) Eskaintzaren balio teknikoa: 50 punturaino

Eskaintzaren Balio Teknikoaren puntuazioak hurrengo kontzeptu hauek izango ditu kontuan, jarraian adierazten den gehienezko puntuazio partzialarekin:

- Obraren planifikazio eta antolaketa: 35 punturaino

Kontzeptu hau hurrengo puntuetan garatuko da:

- Obraren analisisa memoria, obraren atal nabarmenen azterketarekin, planteatutako lan programaren bideragarritasuna baldintzatu edo harengan eragin lezaketen atalak, etab.
- Antzeko obraren planifikazioa eta antolaketa, data eta aurrekontua zehaztuz.
- Obrara adskribituko den pertsonal fakultatiboa, zuzendaritzarako eta exekuziorako, zehaztuz obran zenbatetaraino jardungo duten, kualifikazioa, etab.
- Azpikontratatu nahi diren lanen zerrenda, aurreikusten diren enpresen berri emanez.
- Lan plangintza xehatua, obraren zati desberdinak gauzatzeko kontratistak beharko dituen epe partzialak zehaztuz. Epe osoaren murrizketa baloratu egingo da.

- Hobekuntzak edo eraiketa ondorengo zerbitzua.....15 punturaino

Bi eskaintzen edo gehiagokoan artean berdinketa gertatuz gero, eskaintza ekonomiko txikienarena nagusituko da.

#### HAMAIKAGARREN KLAUSULA. Kontratazio Mahaia

Kontratazio Mahaia hurrengo kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Tolosaldea Garatzeneko Lehendakariordea

Bokalak:

- Tolosaldea Garatzeneko Administrazio Kontseiluko 2 kide.
- Tolosaldea Garatzen, S.A.ko gerentea.
- Tolosaldea Garatzenek izendatutako arkitekto bat.

Idazkaria: Tolosa Garatzeneko Idazkaria

#### HABIGARREN KLAUSULA. Kontratazio organoaren eskumenak.

Kontratazio organoak, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 194 artikulua araberako, hurrengo eskumen hauek dauzka:

- a) Kontratuaren interpretazioa.
- b) Kontratua betetzerakoan egon daitezkeen zalantzak erabakitzea.
- c) Kontratua aldatzea interes publikoko arrazoiengatik.
- d) Kontratua suntsitzea eta horren ondorioak zehaztea.

#### HAMAHIRUGARREN KLAUSULA. Proposamenak irekitzea

Kontratazio Mahaia eratuko da proposamenak aurkezteko epea bukatu eta bosgarren lanegunean, 12:00etan. Eta “A” kartazalak irekiko ditu eta barruan daukaten administrazioko dokumentazioa kalifikatu.

Beharrezkoa bada, Mahaiak gehienez ere hiru eguneko epea emango du, lizitatzailerak zuzen ditzan aurkeztutako dokumentazioko akats edo omisio konpongarririk.

Ondoren, “C” kartazalak ireki eta aztertuko ditu. Kartazal horietan egongo dira haztatzeko balio judizio baten mendean dauden irizpideak.

Aipatu proposamenak irakurri ondoren, Mahaiak eskatu ahal izango ditu beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak, haiek baloratzeko Plegu honetan ezarritako irizpide eta haztapenen arabera.

#### **HAMALAU GARREN KLAUSULA. Dokumentazio errekerimendua**

Bildurik berriro Kontratazio Mahaia, balio judizioa bat eskatzen duten irizpideei emandako haztapena emango da jakitera. Jarraian “B” kartazalak irekiko dira.

Ikusirik balorazioak –haztatzeko balio judizio baten mendean dauden irizpideena (“C” kartazala) eta haztapan automatikoa duten irizpideena (“B” kartazala)-, Kontratazio Mahaia kontratuaren behin-behineko adjudikazioduna proposatuko du.

Kontratazio organoak errekerimendu hau egingo dio abantailarik onena aurkeztu duen lizitatzailerari: errekerimendua jaso eta hurrengo hamar laneguneko epearen barruan aurkeztea dokumentazioa, justifikatuko duena betetzen eta egunean dituela zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak, edota baimena ematea kontratazio organoari egiaztapen horiek zuzenean lortzeko; justifikatuko duena, era berean, kontratua exekutatzeko baliabideak, eskaintzan adierazi dituenak, badituela, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 53.2 artikulua arabera; eta frogatuko duena dagokion behin betiko fidantza jarri izana.

#### **HAMABOS GARREN KLAUSULA. Behin betiko bermea**

Abantailarik handiena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzailerak bermea –adjudikazio zenbatekoaren % 5, Balio Erantsiaren gaineko Zerga alde batera utzita- jarri duela egiaztatu egin behar du.

Berme hori honako modu hautakoren batean prestatu ahal izango da:

a) Dirutan edo Zor Publikoaren baloreetan, kasu bakoitzean, Lege hau garatzen duten arauetan ezarritako baldintzen arabera. Eskudirua eta balore anokatuen inmobilizazio ziurtapenak gordailatu behar dira Gordailu Kutxa Orokorrean edo bere sukurtsaletan, Ekonomia eta Ogasuna Delegazioetan kokatutakoetan, edo parekidea den Kutxa edo establezimendu publikoan, autonomia erkidego edo kontratatzaile diren entitate lokaletakoan, eragina sortu behar duten haietan, Lege hau garatzen duten arauak xedatzen dituzten modu eta baldintzetan.

b) Abal bidez, Lege hau garatzen duten arauak xedatutako modu eta baldintzetan prestatua bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek edota elkarren bermerako sozietateek, Espainian jarduteko baimena duten heinean. Abal hori aurreko a) letran adierazitako establezimenduan ezarri behar da.

c) Kauzio-aseguruaren kontratu bidez, hura Lege hau garatzen duten arauak xedatutako modu eta baldintzetan eginda, arlo horretan jarduteko baimena duen entitate aseguratzaile batekin. Aseguruaren ziurtagiria entregatu behar da aurreko a) letran adierazitako establezimenduetan.

Bermea ez da itzuliko edo indargabetuko, berme epea bukatu eta kontratua behar bezala bete arte.

Berme honek erantzungo du Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeko 88 artikuluan jasotzen diren kontzeptuen gainean.

#### HAMASEIGARREN KLAUSULA. Balore anormal edo desproporzionatuko eskaintzak

Hasiera batean behintzat, desproporzionatutzat edo ausartegitatzat joko da, aurkeztutako proposamen guztien baja portzentajeen batez besteko aritmetikoa, gutxienez, 10 unitatez gaitzen duen baja portzentaia duen proposamena. Horrelakotzat deklaratu baino lehen ustez bertan sartuta dauden lizitatzailerik guztiei informazioa eskatuko zaie, dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoaz gainera.

#### HAMAZAZPIGARREN KLAUSULA. Kontratuaren adjudikazioa

Eskatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost laneguneko epearen barruan, kontratazio organoak kontratuaren adjudikazioa egin behar du.

Lizitazioa ez da inolaz ere hutsik utziko, pleguko irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenik baldin badago.

Adjudikazioa arrazoituta egingo da, eta kontratatzailearen profilean argitaratzearekin batera izangaiei edo lizitatzzaileei jakinaraziko zaie.

Jakinarazpenak, kasu guztietan, beharrezkoa den informazioa edukiko du, baztertutako lizitatzzaileak edo alde batera utzitako izangaiak aukera izan dezan, behar bezala oinarritutako errekurtsoa aurkezteko adjudikazio erabakiaren aurka. Zehazki, hurrengo alderdi hauek jaso behar ditu:

- . Baztertutako izangaiei dagokienez, baztertze horretarako izandako arrazoiaren azalpen laburra.
- . Adjudikazio prozeduratik baztertutako lizitatzzaileei dagokienez, euren eskaintza baztertzeko izandako arrazoiaren azalpen laburra.
- . Edozein kasutan, adjudikaziodunaren izena, ezaugarriak eta proposamenaren abantailak, erabakigarriak izan direnak bere eskaintza gainontzeko lizitatzzaileek egindako eta onartutakoetatik bereizi eta hautatzeko.
- . Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua formalizatzeko epea adieraziko da.

#### **HAMAZORTZIGARREN KLAUSULA. Kontratuaren formalizazioa**

Kontratuaren formalizazioa administrazio dokumentu batean egingo da hamabost laneguneko epearen barruan, behin betiko adjudikazioaren jakinarazpen datatik aurrera kontatuta. Dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora heltzeko.

Kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publikoan jasotzea. Horren gastuak bere kargura izango dira.

#### **HEMERETZIGARREN KLAUSULA. Adjudikaziodunaren eskubideak eta betebeharrak**

Kontratu honen araubide juridikotik sortutako betebeharrak orokorrean gain, kontratistaren betebeharrak espezifikoak honako hauek dira:

A) Ordainketak kontratistari.

Gauzatutako obren ziurtapenak obra zuzendariak adierazitako epeetan egingo dira. Ziurtatutako obra Proiektu Teknikoaren prezioen arabera baloratu da, eta ziurtapenek behin-behineko izaera edukiko dute eta azkeneko likidazioan egin daitezkeen neurketa eta ziurtapenen mende geratuko dira. Eta ondorioz, ez dira hartuko dagozkien obren onspena ezta onarpen gisa ere.

Obrak kontratuko epearen barruan egiteko behar den abiadura baino azkarrago egin ahal izango ditu kontratistak, salbu eta obren zuzendaritzaren iritziz arrazoiak badaude hura desegokitzat jotzeko.

Konturako abonua burutu ahal izango dira, kontratistak alde aurretik eskaera idatzia eginda, obrako material, instalazio eta ekipamenduen metaketagatik, hurrengo xedapen hauek horretarako zehazten dituen modu eta bermekin: Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeko 215 artikulua eta APKEOko 155 artikulutik 157ra.

#### B) Kontratistaren betebeharrak.

Kontratu honen araubide juridikotik sortutako betebeharrak orokorrean gain, kontratistaren betebeharrak espezifikoak honako hauek dira:

- Betebeharrak laborala eta sozialak. Kontratistak nahitaez bete behar ditu indarrean dauden xedapenak hurrengo arlo hauetan: lan, gizarte-segurantza eta laneko arriskuen prebentzioan.
- Kontratistak beharrezkoak diren giza baliabideak eta materialak jarri edo adskribitu behar ditu kontratua gauzatzeko (Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeko 53.2 artikulua).
- Kontratistak, subkontratazioen kasuan, bete egin behar ditu hurrengo xedapen honetan ezarritako baldintzak: Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeko 210. artikulua.
- Obren seinalizazioa. Kontratista behartuta dago bere kostura instalatzeko beharrezkoak diren seinaleak, adierazteko: obrarako sarbidea, lanek hartzen duten zonako zirkulazioa eta arriskugarriak izan daitezkeen puntuak obraren garapenean, aipatu zonan zein bere muga eta inguruetan. Seinalez tapena gutxienez euskaraz egin behar da.
- Administrazio kontratatzailearekin izan beharreko harremanetan euskara erabiliko da normalki. Kontratua gauzatzeari begira, hau da “normalean euskara erabiltzea”: a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen bazaio kontratua gauzatzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezkeen, eta, b)

komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

- Kontratastak Laneko Segurtasun eta Osasun Planean jasotako aurreikuspenak bete behar ditu.
- Kontratastari dagozkion gastuak. Kontratastaren kontura dira lizitazio eta adjudikazoaren iragarkiaren edo iragarkien gastu eta zergak eta aplikaziozkoak diren gainerako guztiak, indarrean dauden xedapenen arabera eta hauek adierazten duten moduan eta zenbatekoarekin. Obra finantzatzen duen Administrazioaren bat exijituz gero, kontratastak bere kargura instalatuko ditu obraren identifikazio kartelak, erabakitzen diren ezaugarriekin.

#### **HOGEIGARREN KLAUSULA. Laneko Segurtasun eta Osasun Plana**

Kontrataua formalizatuta, adjudikaziodunak obraren gaineko Laneko Segurtasun eta Osasun Plana egingo du, Proiektuko Segurtasun eta Osasun Azterketari egokituta, eta bertan aztertu, garatu eta osatu egingo dira haietan ezarritako aurreikuspenak.

Plan horretan sartuta egongo dira, kasua denean, prebentzioko neurri proposamen alternatiboak, kontratastak proposatuak, dagokien justifikazio teknikoarekin. Horrek ezin izango du ekarri Azterketak aurreikusitako prebentzio mailaren murrizketarik.

Plana Tolosaldea Garatzen, S.A.k onartu behar du obra hasi baino lehen, segurtasun eta osasun arloko koordinatzailearen edo obrako zuzendaritza fakultatiboaren (baldin eta aginduzkoa ez bada koordinatzailea izendatzea) txostena aurretik dela; eta lan-administrazioako agintaritzari komunikatuko zaio. Tramite hori bukatuta, zuinketa akta egin eta obrari ekingo zaio.

#### **HOGEITA BATGARREN KLAUSULA. Prezioen berrikuspena**

Kontratu honen prezioa ezin izango da berrikusi.

#### **HOGEITA BIGARREN KLAUSULA. Harrera eta berme epea**

Obrak bukatzean, haien harrera egiteko partaide hauek agertu behar dute: kontratuaren arduraduna (izendatuta badago) edo haren ordezkaritza duen Administrazioak izendatutako fakultatiboa, obren zuzendaritzaz arduratzen den fakultatiboa eta kontratista (egokitzat jotzen badu, bere fakultatiboak lagunduta).

Harrera egin eta hiru hilabeteko epearen barruan, egindako obren azken ziurtapena onartu beharko du kontratazio organoak. Zenbateko hori kontratistari ordainduko zaio, kontratuaren likidazioaren kargura.

Obrak egoera onean aurkitzen badira, eta aurreikusitako aginduen arabera, Administrazio kontratatzaileak eta haren ordezkariak izendatutako funtzionario teknikoak, hartutzat joko ditu eta dagokion akta egingo du. Orduan hasiko da berme epea.

Obrak ez badaude hartzeko moduan, halaxe jasoko da aktan eta obren zuzendaritzak ikusten diren akatsak adieraziko ditu eta haiek konpontzeko aginduak zehaztu eta epea jarriko ditu. Aipatu epea iragan eta gero, kontratistak ez baditu egin agindutako konponketak, beste epe luzaezin bat eman ahal izango zaio edo kontratua desegin.

Urte leko berme epea jartzen da, obren harrera datatik kontatuta.

Berme epea amaitu baino hamabost egun lehenagoko epealdiaren barruan, obraren zuzendari fakultatiboak, ofizioz edo kontratistaren eskariz, txosten bat egingo du obren egoerari buruz. Aldekoa bada, kontratista erantzukizunetatik kanpo geratuko da, baina ez ezkutuko akatsen gaineko erantzukizunetatik, eta bermea itzuli edo ezeztatu egingo da, kontratuaren likidazioa egin eta, kasua bada, ordaintzeko dauden obligazioak ordaindu hirurogei eguneko epearen barruan. Txostena kontrakoa bada eta ikusitako akatsak obren exekuzioan gertatuak badira eta ez erabileragatik, berme epearen barruan, zuzendari fakultatiboak bidezko aginduak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpontzeko. Era berean, epe bat jarriko zaio horretarako eta epe horretan bertan obren kontserbazioaz arduratzen jarraitu beharko du, berme epea luzatu izanagatik inolako kopururik jasotzeko eskubiderik gabe.

Berme epea bukatu eta gero obra hondatzen bada eraikuntzako ezkutuko akatsengatik, kontratistak ez duelako behar bezala bete kontratua, berak erantzun beharko du hamabost urteko epean (harrera datatik kontatuta) agertzen diren kalte eta galerengatik.

#### **HOGEITA HIRUGARREN KLAUSULA. Kontratuaren exekuzioa**

Kontratua hasiko da betetzen zuinetaren egiaztapen akta, bigarrena, egin eta obrak hastean. Horren ondorioetarako, kontratuan ezartzen den epearen barruan (ezin izango da hilabete bat baino handiagoa izan, hura formalizatzen denetik kontatuta, salbuespenetzko eta justifikatutako kasuetan izan ezik), obrez arduratzen den Administrazio zerbitsuak, kontratista aurrean dela, Obra Proiektua onartzerakoan egindako zuinketa egiaztatuko du, bigarren akta eginez. Emaitzaren akta bi alde interesdunek sinatuko dute eta ale bat kontratua egin zuen organoaren eskuetan utziko da.

Obrak egiterakoan zorrozki jarraitu beharko zaie Klausula Administratibo Partikular hauei, kontratuaren oinarri den proiektuari eta obren zuzendari fakultatiboak emandako aginduei, bere eskumenen barruan eta proiektuaren interpretazio teknikoa eginez.

Kontratistak obligazioa du betetzeko kontratuan lanak egiteko ezarritako epeak –obra osoarena eta bata bestearen atzetik egitekoak diren obra partzialena-.

Kontratista berandutzan dagoela ulertuko da adierazitako epeak igarotzean, eta ez da beharrezkoa izango Administrazioaren aldetik aldezturiko ohartarazpenik.

#### HOGEITA LAUGARREN KLAUSULA. Kontratuaren aldaketa

Kontratua burutu eta gero, kontratazio organoak aldatu ahal izango du kontratua interes publikoko arrazoiengatik eta ezustekoei erantzun ahal izateko. Aldaketaren beharra espedientean behar bezala justifikatu beharko da. Kontuan hartu behar da, hain zuzen ere, horrek ezin izango diela eragin kontratuaren funtsezko baldintzei.

Ez da kontratuaren aldaketatzat hartuko kontratuaren xedea zabaltzea, baldin eta zabaltze hori ezin bada hasierako proiektuan integratu zuzenketa baten bidez, edo zabaltze hori erabilera edo aprobetxamendu independentea izan dezakeen prestazioa gauzatzea bada edo kontratua prestatzeko dokumentazioan jaso ez diren beste helburu batzuk betetzeko prestazioa gauzatzea bada. Kasu horretan, bereizita kontratatu beharko da, eta, hala badagokio, prestazio osagarriak kontratatzeko araubidea aplikatu ahal izango da, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 155 b) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Ildo horretatik, obra kontratuak adjudikatu ahal izango dira prozedura negoziatuaren bidez, baldin eta proiektuan edo kontratuan, edo emakida-proiektuan edo hasierako kontratuan aipatzen ez ziren obra osagarriak badira, aurreikusi gabeko egoera bategatik beharrezko bihurtu direnak obra proiektuan edo kontratuan deskribatuta zegoen bezala aldaketarik gabe gauzatzeko, eta obra horren gauzatzea obra nagusiaren kontratistaren edo obra publikoaren emakidadunaren esku uzten bada, jatorrizko kontratuan ezarri ziren prezioen arabera edo, hala balegokio, prezio kontrajarrien arabera gauzatzeko. Betiere, administrazioari eragozpen handirik eragin gabe jatorrizko kontratutik ezin bereizteko modukoak izan behar dute obra horiek, bai teknikoki bai ekonomikoki, edo, bereizi ahal izateko modukoak izan arren, guztiz beharrezkoak izan behar dute kontratua burutuko bada. Gainera, obra osagarrien zenbateko metatua ezin da izan kontratuaren hasierako prezioa baino % 50 handiagoa. Aipameneko baldintzak betetzen ez dituzten obra osagarrietarako beste kontratazio bat egin beharko da.

Halere, kontratistak obra-kontratua aldatu egin beharko du, ezinbestean, lehenbiziko paragrafoak xedatutakoarekin bat etorrira, obra-unitateak handitu, murriztu edo kentzea eragingo duten obrak badira; edo fabrika mota baten ordeztelako fabrika bat jartzeko obrak badira (fabrika mota berria kontratuan agertzen denetako bat bada). Obrak ezabatu edo gutxitzen badira, kontratistak ez du inolako kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik edukiko.

Kontratuaren aldaketak Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeko 140 artikulua xedatuaren arabera formalizatu beharko dira.

#### **HOGEITA BOSTGARREN KLAUSULA. Zigorak kontratua ez betetzeagatik**

— Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, epe osoa betetzeko orduan berandutze-egoeran jarri bada, administrazioak aukeran izango du, edo kontratua suntsiarazi, edo eguneroko zigorrak ezartzea proportzio honetan: kontratuaren prezio osoaren 1.000 euroko 0,20 euro.

Atzeratu izanagatik ezarritako zigorrak kontratuaren 100eko 5en multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio organoak kontratua bertan behera utzi ahal izango du edo, bestela, beste zigor batzuk ezarrita, hura betetzen jarraitzea adostu dezake kontratistarekin.

- Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala bete gabe utziz gero, Administrazioak bi aukera ditu: edo kontratua suntsitu, edo lehen zehaztuta dauden zigorrak ezarri.

- Kontratistak ez badu betetzen kontratuaren exekuziorako behar diren baliabideak — pertsonala edo materiala- adskribatzeko baldintza, kontratuaren aurrekontuaren % 10eko zigorra jarriko zaio.

Zigorra kontratazio organoak erabakita ezarriko dira, kontratuaren arduradunak –baldin badago- proposatuta, berehala exekutiboa izango da, eta horiek kontratistari ordaindu beharreko zenbateko osotik edo partzialetik kenduko dira zuzenean; edo, bestela, kasua denean, eraturako bermetik, aipameneko ziurtapenetatik ezin denean kendu.

#### **HOGEITA SEIGARREN KLAUSULA. Kontratuaren suntsipena**

Kontratua suntsitzeko arrazoiak honako xedapen hauetan daude jasota: Plegu honetan eta Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 206. eta 220. artikuluetan. Suntsipena kontratazio organoak erabakiko du, ofizioz edo kontratistak eskatuta.

Kontratua kontratistaren erruz suntsitzen bada, behin betiko bermea konfiskatu egingo zaio, Administrazioari kalte eta galerengatiko indemnizazioaren kalterik gabe, bermearen zenbatekoa gainditzen duen neurrian.

#### HOGEITA ZAZPIGARREN KLAUSULA. Kontratuaren araubide juridikoa

Kontratu honek izaera administratiboa du eta bere prestaketa, adjudikazio, ondorio eta iraungipena Plegu honen xedapenen mende egongo dira. Bestalde, Plegu honek aurreikusten ez duen hartan, xedapen hauek aplikatuko dira: Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua - Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena-, eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, 30/2007 Legearekin bat datorren guztian eta 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartu zenetik indarrean dagoen heinean; osagarri moduan administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, hura ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak izango du eskumena kontratu honetan bi aldean artean sortzen diren eztabaidak ebazteko, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 21.1 artikuluekin bat etorriz.

Tolosan, 2011ko martxoaren 30a

Tolosaldea Garatzen, S.A.ko lehendakaria.

Stua.: JOKIN BILDARRATZ SORRON